

## **BEZEROAREKIKO HARREMANAK**

Gaur egun gure proiektuak bultzatzen duen ideia gero eta hedatuago dago gizartean eta beraz, bezeroak negoziara erakartzea ez da oso zaila izango. Gainera, gastrotekarako pentsatua dugun diseinuak eta langileen tratu onak sortuko duen giroak gehiago erakarriko die eta honekin bezero horiek fidelizatzea lortuko dugu.

Salmentak suspertzerako garaian, hainbat eskaintza egin edo produktu berriak sortu ditzakegu. Hau da, “happy hour” moduko eskaintzaren baten bidez edo plater berriak sortuz.

